



48/2013 EZ LEGEZKO PROPOSAMENARI,
EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO JABETZA
HORIZONTALLEKO ERREGIMENEN JABEEN
ERKIDEGOEN FINANTZA ERAKUNDEEK EGIN-
DAKO ZORRAREN KUANTIFIKAZIOARI BURUZ-
KOARI, JARRITAKO TRANSAKZIO ZUZENKETA
BETETZEKO EUSKO LEGEBILTZARRAREN-
TZAKO KOMUNIKAZIOA.

(10/11/02/01/0055)

COMUNICACIÓN AL PARLAMENTO VASCO EN
RELACIÓN CON EL CUMPLIMIENTO DE LA
ENMIENDA TRANSACCIONAL A LA PROPOSI-
CIÓN NO DE LEY 48/2013, RELATIVA A LA
CUANTIFICACIÓN DE LA DEUDA CONTRAIDA
POR LAS ENTIDADES FINANCIERAS PARA CON
LAS COMUNIDADES DE PROPIETARIOS EN
RÉGIMEN DE PROPIEDAD HORIZONTAL DE LA
COMUNIDAD AUTÓNOMA VASCA.

(10/11/02/01/0055)

48/2013 ez-legezko proposamena, Euskal Autonomia
Erkidegoko jabetza horizontaleko erregimeneko
jabeekideen erkidegoekin finantza-erakundeek
egindako zorraren kuantifikazioari buruzkoa, betetze
aldera, Etxebizitzaren Euskal Behatokiak banku-
erakundeek jabeen erkidegoetan egindako zorrei
buruz prestatu duen txostenaren kopia erantsi dut.

En cumplimiento de la Proposición no de Ley
48/2013 relativa a la cuantificación de la deuda
contraída por las entidades financieras para con las
comunidades de propietarios en régimen de
propiedad horizontal de la Comunidad Autónoma
Vasca, adjunto remito copia del Informe realizado por
el Observatorio Vasco de Vivienda relativo a los
impagos de las entidades bancarias en las
comunidades de propietarios.


Vitoria-Gasteiz, 2013ko urriaren 29a



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ENPLEGU ETA GIZARTE
POLITIKETAKO SAILA

Juan María Aburto Rigue
ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILBURUA
CONSEJERO DE EMPLEO Y POLÍTICAS SOCIALES



ETXEBIZITZAKO
BEHATOKIA
OBSERVATORIO
VASCO DE LA
VIVIENDA

IMPAGOS DE LAS ENTIDADES BANCARIAS EN LAS COMUNIDADES DE PROPIETARIOS


El Observatorio Vasco de la Vivienda (OVV) satisface con este informe el requerimiento que el Parlamento Vasco hizo para que analizara la problemática de la morosidad en las Comunidades de Propietarios generada por los impagos por parte de las entidades financieras.

El 28/01/2013, el OVV, a través de su Blog: <http://viviendaeuskadi.blog.euskadi.net/> dedicó un artículo a las deudas de las entidades financieras en los edificios en los que habían practicado alguna ejecución hipotecaria:


<http://viviendaeuskadi.blog.euskadi.net/2013/01/28/cuando-elvecino-moroso-es-un-banco/>.

Es un problema que se está desvelando de gran calado y completamente imprevisto en los inicios de la crisis financiera e inmobiliaria. Una de las múltiples consecuencias derivadas del periodo económico actual.

Según los últimos datos disponibles extraídos del *II Informe de Morosidad* del Observatorio de las Comunidades de Propietarios, al cierre de 2012, las deudas contabilizadas en las Comunidades de Propietarios superaron los 1.606 millones de euros. Y las perspectivas para el 2013 no son nada esperanzadoras porque se prevé llegar hasta los 1.900 millones en impagos, siendo las entidades financieras uno de los principales morosos.



En este sentido, la evolución que han experimentado los impagos a las Comunidades de Propietarios, ha sido manifiestamente adversa año tras año:




La principal causa que se constata para estos incrementos anuales de las deudas sin cobrar es, precisamente, una deficiente gestión de la morosidad por desconocimiento del procedimiento judicial para la reclamación de las deudas. A lo que se añade un alto coste económico para las Comunidades de Propietarios una vez que deciden iniciar el procedimiento judicial¹.

El aumento de ejecuciones hipotecarias que **las entidades financieras** han realizado desde el inicio de la crisis, les ha convertido en miembros habituales de las Comunidades de Propietarios. Unos vecinos que **adeudan en 2012**, en cuotas ordinarias y extraordinarias, por los pisos que se han adjudicado, **más de 256 millones de euros**.


¹ La Ley 10/2012 de tasas judiciales determina que con la interposición de una demanda judicial han de pagar se una tasa dependiendo del tipo de procedimiento que inicie. Ciertamente es que la tasa judicial va incluida luego en el concepto de costas procesales, pero quien tiene que hacer el desembolso inicial para acudir a la justicia es la Comunidad de Propietarios.

La cuantía a ingresar, es el resultado de sumar dos variables, por un lado, dependerá del tipo de procedimiento que se vaya a interponer (una tasa fija por tipo de procedimiento) y, por otro, de la cuantía del importe reclamado (variable, hasta un millón de euros de cuantía reclamada, se abonará el 0,50%).

Están exentos del pago de la tasa judicial los procedimientos donde se reclamen gastos de comunidad por cuantía inferior a 2.000 euros.





La morosidad del sector financiero supone una media del 16% del total que soportan las Comunidades, destacando por provincias Soria, donde llegan a representar el 33% de las deudas, ó Sevilla con un 25%. Muy significativos impagos que producen graves consecuencias en el mantenimiento de los suministros generales del edificio.




En cuanto al importe adeudado destacan la Comunidad de Andalucía, donde las entidades financieras han dejado de abonar más de 47 millones de euros, Cataluña con 39 millones y Madrid con 36 millones de euros.

Estas cifras están directamente correlacionadas con los datos suministrados en el último Informe del Colegio de Registradores de la Propiedad, sobre los *Impagos hipotecarios de vivienda 2012*, donde las Comunidades Autónomas con mayor número de procedimientos de ejecución hipotecaria iniciados son precisamente las anteriores, con Andalucía a la cabeza y más de 13.000 procedimientos, seguida de Cataluña y Comunidad Valenciana con más de 12.000 y 11.000 procedimientos respectivamente y Madrid con casi 7.000 procedimientos iniciados.



Servicio de Estudios, Planificación y Presupuestos
Azterlan, Plangintza eta Aurrekontuen Zerbitzua




Y es que, en el País Vasco el peso relativo de **la primera vivienda en los procesos de ejecución hipotecaria supone casi un 85% de los 785 casos totales contabilizados.**

Y es que esta creciente morosidad bancaria , contrasta, precisamente, con el aumento de las ejecuciones por impago de hipotecas. Un comportamiento contradictorio que debe exigir una inmediata corrección extremando el celo exigible para corregir el impago de cuotas por las entidades financieras.

Desde el Colegio de Administradores de Fincas se constata la negativa a pagar por parte de las entidades financieras como un comportamiento ampliamente generalizado y que obliga a las Comunidades de Propietarios a exigir sus derechos a través del procedimiento judicial, extremo que no se contempla, en muchas ocasiones, ni con los morosos más recalcitrantes, ya que, suelen pagar antes de llegar a los juzgados.

Esta problemática se agrava porque con la actual Ley de Propiedad Horizontal, sólo se permite reclamar las deudas producidas en el año en curso y el inmediatamente anterior, por lo que, si esta situación se enquistaba en el tiempo, los impagos no se verán resarcidos nunca, dejando a las Comunidades de Propietarios en un estado de grave debilidad para hacer frente a sus gastos de conservación y mantenimiento de edificios, legalmente exigibles a los propietarios, por otro lado, desde las administraciones públicas, y , base instrumental sobre la que se pretende configurar un nuevo modelo de crecimiento económico para el sector de la construcción, basado en la rehabilitación edificatoria, y la regeneración y renovación urbana.

Por el lado de las entidades financieras, se alude al estado de indefinición que existe entre el periodo de inicio del proceso de embargo y la adjudicación final, en el que, pueden darse varios meses de indeterminación de la propiedad y sus deberes derivados, a lo que, normalmente, hay que añadir que cuando se inicia el proceso de ejecución hipotecaria, el embargado suele ya estar en una situación muy precaria para hacerse cargo de los pagos mensuales de su comunidad.



ETXEBIZITZAKO
BEHATOKIA
OBSERVATORIO
VASCO DE LA
VIVIENDA

El stock actual de vivienda en manos de bancos, promotores e inversores particulares es muy complicado de determinar, o mejor dicho, la información pública asociada al mismo es muy poco transparente.


Algunos profesionales del sector consideran que las entidades financieras tienen entre sus activos más de 400.000 viviendas, de las que, 89.000 pasarán a engrosar la cartera de Sareb, Sociedad de Gestión de Activos procedentes de la Reestructuración Bancaria, junto con más de 13 millones de metros cuadrados de suelo, y el resto, intentarán dar salida a través de sus empresas inmobiliarias particulares.

Previsiblemente, la morosidad bancaria no se solucionará en el medio y corto plazo, ya que, dependerá de la capacidad de absorción de la oferta, y de superar las dificultades propias de la financiación bancaria para particulares y promotores, y de otras más sectoriales, como establecer garantías suficientes de cobro para las Comunidades de Propietarios.

En esta última línea de acción los sectores afectados piden medidas urgentes, como que las Comunidades de Propietarios tengan la catalogación de consumidores finales, para que no se les apliquen las tasas judiciales en los procesos de recuperación de impagos, la adopción de reformas legislativas en la Ley de Propiedad Horizontal para que se responda de los impagos de las cuotas por parte de los morosos en los últimos cinco años etc.

Como conclusión, la morosidad bancaria en el pago de las cuotas de las comunidades de propietarios de las que forman parte, es una sorprendente paradoja en los tiempos actuales, es cuantitativamente importante, y presenta una tendencia creciente, que choca con el tratamiento que las citadas entidades financieras aplican a la morosidad de sus créditos, desde las posibilidades legales que el sistema les permite, obviamente.


Ese mismo sistema legal se muestra como claramente insuficiente y caro para garantizar el efectivo combate a la morosidad soportada por las comunidades de propietarios, lo que obliga a adoptar medidas urgentes y efectivas en la materia.



ETXEBIZITZAKO
BEHATOKIA
OBSERVATORIO
VASCO DE LA
VIVIENDA

En juego está la cobertura efectiva del deber de conservación de los edificios que tienen los propietarios, y que es exigido desde el ámbito de las administraciones públicas.

Para terminar de cerrar el círculo, es el patrimonio edificado existente, las actuaciones tendentes a su conservación, mejora de su calidad y sostenibilidad, y refuerzo de su accesibilidad, la base material sobre la que se quiere edificar, más exactamente, rehabilitar, un nuevo sector económico rico en empleo y actividad económica, y que permita cumplir con los objetivos sobre energía y cambio climático establecido por la Unión Europea para 2020.



ETXEBIZITZAKO
BEHATOKIA
OBSERVATORIO
VASCO DE LA
VIVIENDA

BANKU-ERAKUNDEEN EZ ORDAINTZEAK **JABEKI DEEN ERKI DEGOETAN**


Erakunde finantzarioek dagozkien kuotak ordaintzen ez dituztela-eta Jabekideen Erkidegoetan sortu ohi diren berankortasun-arazoei buruzko azterketa bat egiteko eskatu zuen Eusko Legebiltzarrak, eta, eskari horri erantzuteko, Etxebizitzaren Euskal Behatokiak txosten hau prestatu du.

Exekuzio hipotekarioak eginak dituzten etxebizitzetako Jabekideen Erkidegoetan erakunde finantzarioek duten zorra gaitzat hartuta, Etxebizitzaren Euskal Erakundeak artikulu bat idatzi zuen 2013ko urtarrilaren 28an, <http://viviendaeuskadi.blog.euskadi.net/> bere blogean; helbide honetan aurkituko duzue artikulua:


<http://viviendaeuskadi.blog.euskadi.net/2013/01/28/cuando-elvecino-moroso-es-un-banco/>.

Inolako zalantzarik gabe, esku artean dugun hau oso arazo larria da, nahiz eta finantzen zein higiezinaren krisia hasi zen garaian inork ez zion igarri ere egin. Esan liteke, beraz, gaur egungo aro ekonomikoaren ondorio askotarikoetako bat dugula hizpide hartu dugun auzi hau.

Jabekideen Erkidegoaren Behatokiak argitaratutako *Berankortasunari buruzko 2. Txostenean* ageri diren datuen arabera, 2012. urtearen amaieran Jabekideen Erkidegoei 1.606 milioi eurotik gora zor zitzairen. Eta 2013. urterako espero diren datuak ere ez dira batere itxaropentsuak; izan ere, itxura guztien arabera, 2013an 1.900 milioi euro ingurukoa izan liteke zorra, eta, horretan, berankor nagusiak erakunde finantzarioak izan litezke.



Alde horretatik, beraz, argi dago Jabekideen Erkidegoei ordaindu gabe utzitako zorraren bilakaera oso petrala izan dela:




Zorrek erreklamatzeko abian zer prozedura judizial jarri behar diren behar bezala ez jakitearen ondorioz, berankortasuna oso modu kaskarrean kudeatu izan da, eta horixe izan da, hain zuzen, azken urteetan kobratu gabeko zorrak hain hazkunde nabarmena izatearen arrazoi nagusia. Oso kontuan hartu behar da orobat prozedura judizialen kostua oso handia dela, eta horrelakoren bati ekitea oso garesti ateratzen zaiela Jabekideen Erkidegoei¹.

¹ Tasa judizialei buruzko 10/2012 Legeak ezarritakoaren arabera, auzi judizial bat abian jartzen denean, tasa jakin bat ordaindu behar izaten da, martxan jartzen den prozedura-motaren arabera. Egia da, hala ere, prozedura amaitzean prozesu-kostuak nork ordaindu behar dituen, hark hartu behar izaten duela bere gain tasa judizialen ordainketa. Baina, edonola ere, epaitegietara jo eta hasierako ordainketa guztiak Jabekideen Erkidegoek egin behar izaten dituzte.


Tasetan zenbat diru ordaindu behar den jakiteko, bi aldagai hauek hartu behar dira kontuan: batetik, abian zer prozedura-mota jarriko den (prozedura-mota bakoitzeko tasa finko bat ordaindu behar baita); eta bestetik, zenbat diru erreklamatu den (zenbatekoa aldakorra da, milioi bat euro bitartekoa, baina tasetan ordaindu beharrekoa % 0,50 izaten da beti).


2.000 eurotik beherako komunitate-gastuak erreklamatzeko prozeduretan, ordea, Jabekideen Erkidegoek ez dute tasa judizialik ordaindu behar izaten.



Krisia hasi zenetik, **erakunde finantzarioek** martxan jarritako exekuzio hipotekarioek gora egin dute nabarmen, eta hori dela tarteko, banku-erakunde asko eta asko Jabekideen Erkidegoetako kide bihurtu dira. Etxe-jabe bihurtutako banku-erakunde horiek **256 milioi eurotik gorako zorra metatu zuten 2012an**, dela kuota arruntak ordaindu ez zituztelako, dela ez-ohiko kuotei aurre egin ez zitelako.

Sektore finantzarioaren berankortasun-maila autonomia-erkidegoek jasaten dutenaren % **16 da batez beste**; eta probintzietako datuei erreparatuz gero, bi bira nabarmenenak: Soria (zorren % 33) eta Sevilla (zorren % 25). Esan gabe doa, noski, zor horiek guztiek oso modu lazgarrian eragiten dietela etxebizitzetako hornidurei eta mantenu-lanei.







ETXEBIZITZAKO
BEHATOKIA
OBSERVATORIO
VASCO DE LA
VIVIENDA

Zorraren zenbatekoari dagokionez, Andaluziako Autonomia Erkidegoa gailentzen zaie gainerakoei. Izan ere, Andaluzian, erakunde finantzarioek 47 milioi eurotik gorako zorra dute; Andaluziari Kataluniak jarraitzen dio, 39 milioi euroko zorrarekin; eta Kataluniari, berriz, Madrilek, 36 milioi euroko zorrarekin.

Kopuru horiek guztiak hertsiki lotuta daude Jabetza Erregistratzaileen Elkartek emandako datuekin: *2012ko etxebizitzaren hipoteka ordaindu gabeak (Impagos hipotecarios de vivienda 2012)* izeneko dokumentuaren arabera, goraxeago aipatutako autonomia-erkidego horietan abiarazi dira, hain zuzen, exekuzio hipotekario gehien-gehienak; eta horretan ere Andaluzia da nagusi (13.000 prozedura abian); haren atzetik, Katalunia (12.000 prozedura abian) eta Valentziako Erkidegoa (11.000 prozedura abian) daude; eta azkenik, Madril (ia 7.000 prozedura abian).





Euskadiri dagokionez, **bankuen berankortasun-maila** batez bestekoaren gainera dago: 2012. urtean, **12 milioi euroko zorra metatu zuten bankuek**; Euskal Autonomia Erkidegoak jasaten duen berankortasunaren % **17**, alegia. Euskadiko Jabekideen Erkidegoek kontabilizatua duten **63 milioi euroko zorra** oinarri hartuta, probintziaz probintzia honela banatzen da Euskadiko bankuen berankortasun-maila: Bizkaiko Jabekideen Erkidegoetan, 6 milioi euroko zorra, Gipuzkoakoetan, 4 milioi eurokoa; eta Arabakoetan, 2 milioi eurokoa.


Euskadin, gainera, abian diren exekuzio hipotekario gehienak lehen etxebizitzaren gainekoak dira, eta hori dela tarteko, gurean askoz larriagoa da banku-erakundeek zorrak dakarren berankortasuna.

Izan ere, Euskadin abian diren **785 exekuzio hipotekarioen % 85 dira lehen etxebizitzaren gainekoak**.

Dena den, harrigarria bada ere, banku-erakundeek berankortasun-maila inoizko handiena den sasoi honetan, hipotekak ez ordaintzeagatik abian jarritako exekuzio-kopuruak ere gora egin du. Begi-bistan dagoenez, ezinbestekoa da fenomeno guztiz kontraesankor hori berehala zuzentzea, eta horretan, nahitaezkoa da agudo eta zorrotz jokatzeari, erakunde finantzarioek dagozkien kuotak alaitasunarekin lasterren ordain ditzaten.

Finka Administrazioaileek Elkargoak argi eta garbi adierazi du erakunde finantzarioek dagokiena ordaintzeari uko egiten diotela eta jokabide hori oso zabaldua dagoela. Eta horren ondorioz, jakina, Jabekideen Erkidegoek nahitaez ekin behar izaten diete era bateko edo besteko prozedura judizialei, epaitegiek beren eskubideak bermatu ditzaten. Horrenbestez, berankorrik setatsuenekin ere hartu behar izaten ez diren neurriak hartu behar izaten dira erakunde finantzarioekin, partikularrek, oro har, epaitegiara jo aurretik kitatzen baitute beren zorra.

Gaur egun indarrean den Jabetza Horizontalaren Legeak, gainera, arazoa larriagotu besterik ez du egiten. Izan ere, lege horren arabera, ordaintzeari noiz utzi zaion, urte horri eta egutegiko aurreko urteari dagozkion zorrak baino ezin daitezke erreklamatu. Beraz, egoera gaiztotu eta prozedurek luze jotzen duten kasuetan, garbi dago zorrak



ETXEBIZITZAKO
BEHATOKIA
OBSERVATORIO
VASCO DE LA
VIVIENDA


kitatzerik ez dela egoten. Horrek, jakina, oso egoera txarrean uzten ditu Jabekideen Erkidegoak: etxe-jabeei legez exijitzen zaizkien gastuei (zaintze-lanak, mantenua..) aurre egin ezinik, sarri askotan. Eta auzi horri dagokionez, Administrazio Publikoaren egoera ere ez da oso ona, eraikuntza-sektorea bultzatzea helburu duen hazkunde ekonomikoa lortzeko beharrezkoak diren oinarri instrumentalak kolokan jartzen baitira: eraikinen birgaitzea eta hirigintzaren eraberritzea oinarri dituzten baliabideak, zehatz esatera.

Erakunde finantzarioek diotenez, berriz, etxebizitza enbargatzeko prozesua abian jartzen denetik hura jabetzan hartzen duten arte, ziurtasunik eta zehaztasunik eza omen dira nagusi, eta horren ondorioz, zenbait hilabetez ez omen da batere argi egoten jabetza partikularrari edo bankuari, bietako zeini dagokion, ez eta, beraz, etxe-jabe izateak dakartzan betebeharrak nori dagozkion ere. Horrez gain, kontuan hartu behar da, bankuen arabera, hipoteka exekutatzeko prozesua martxan jartzen denerako, enbargatutako etxebizitzaren jabeak oso egoera larrian egon ohi direla, eta beraz, bizilagunen komunitateko hileko gastuei aurre egiteko modurik ere ez duela izaten.

Bankuek, sustatzaileek eta inbertitzaile partikularrek gaur egun jabetzan zenbat etxebizitza dituzten zehaztea ez da batere erraza; hobeto esan, horrekin guztiarekin lotutako informazio publikoa ez da batere gardena.

Sektoreko zenbait profesionalen arabera, erakunde finantzarioek dituzten aktiboetatik 400.000tik gora omen dira etxebizitzak. Aktibo horietatik guztietatik, Sareb izeneko Bankuen Berregituratzetik datozen Aktiboak Kudeatzeko Elkartek bere gain hartu omen ditu 89.000 etxebizitza eta 13 milioi metro koadro zoru. Eta gainerakoa, berriz, higiezin enpresa partikularren esku gelditu da.

Ziur asko, bankuen berankortasunak dakartzan arazo larriak epe ertain nahiz laburrean konpontzerik ez da egongo. Horretarako, izan ere, beharrezkoa litzateke zenbait alderditan hobekuntzak egitea: etxebizitza-eskaintza xurgatzeko ahalmenean eta finantzaketa lortzeko partikular nahiz sustatzaileen aukeretan, besteak beste; bai eta beste zenbait alderdi sektorialagoetan ere, hala nola Jabekideen Erkidegoekiko zorra kobratzeko ezinbestekoak diren bermeetan.



Azken alderdi horri dagokionez, tartean diren sektoreek zenbait neurri urgentziaz hartzeko eskatu dute; hauek, besteak beste: Jabekideen Erkidegoen katalogazioa aldatu eta azken kontsumitzailetzat har ditzatela, zorrak kitatzeari begira abian jarritako prozedura judizialean tasa judizialik ordaindu beharrik izan ez dezaten; eta Jabetza Horizontalaren Legean zenbait lege-erreforma egin ditzatela, berankorrek zor dituzten kuoten ordainketa egiteko oinarritzat azken bost urteak har daitezen.

Horrenbestez, paradoxa harrigarria da gaur egun banku-erakundeak bizilagunen komunitateetako kide izan bai baina, aldi berean, berankorrek izatea. Zorren zenbatekoari begiratzen badiogu, gainera, diru-kopuru itzelez ari garela ohartuko gara, eta ez dirudi joerak behera egingo duenik. Beste alde batetik, garbi dago banku-erakundeek jokabide hori ez datorrela inondik ere bat erakunde finantzario horiek berek maileguan utzitako dirua itzultzen ez dieten berankorrei aplikatzen dieten neurriekin, nahiz eta horretan, jakina, sistemak berak emandako lege-aukerez baliatzen diren.

Nolanahi ere, lege-sistema hori ez da inondik ere nahikoa, Jabekideen Erkidegoek pairatu behar izaten duten egoerari aurre egiteko, eta oso garestia da, gainera. Horren ondorioz, ezinbestekoa da albait lasterren zenbait neurri eraginkor hartzea, asimetria-egoera nabarmen horri aurre egingo bazaio.

Etxebizitzak behar bezala zaintzeko eta mantentzeko etxe-jabeek duten betebeharra eraginkortasunez bermatzea, horixe dago jokoan; eta Administrazio Publikoari dagokio, hain zuzen, berme horiek ziurtatzeko ardura.

Zirkulua ixte aldera, esan dezagun Europar Batasunak energiaren eta klima-aldaketaren gainean 2020rako ezarri dituen helburuak beteko baditugu ezinbestekoa dela enplegua eta jarduera ekonomikoa biziberrituko dituen ekonomia-sektore indartsu bat gotortzea. Sektore hori eraiki eta are birgaitzeko, behar-beharrezkoa dugu gaur egun gurean dugun eraikuntza-ondarea behar bezala zaintzea eta hobetzea, iraunkortasunean eta irisgarritasunean ere aurrera eginez.